



Adingabeko etorkinen zentroko egoera «jasanezina» dela salatu dute

TOLOSA ▶ EB-Aralar eta PSE-EEK egoerari irtenbidea ematea eskatu ostean, Foru Aldundiak zentroetako egoera hobetzeko lan-talde bat eratzea proposatu du ▶ 3



N. URBIZU

Markel Olanoren bisita izan dute

ABALTZISKETA ▶ Gipuzkoako Ahaldu Nagusiaren, Markel Olanoren bisita izan zuten atzo Abaltzisketan. Logika lantegia eta Larraizko parke naturala gertutik ikusi zituen Olanok. Ondoren, udaletxean, udalbatzako kideekin bildu zen. Alkateak harrera egin ostean, Ahaldu Nagusiak azaldu zuen Gipuzkoako udalerririk bisitatzeko asmoa duela bakoitzaren errealitatea ezagutzeko. N. URBIZU ▶ 5

VILLABONA - ZIZURKIL ▶

Euskara ikasi nahi dutenek diru laguntza eskatzeko aukera dute

%75era arteko laguntza ematen dute bi udalek; gaur da azken eguna ▶ 4

LEITZA ▶

Kirola eta jaia uztartzen dituen proba, Donostiatik Leitzara

XVIII. Kaskagorren Pentatloiak ehundik gora parte-hartzaile izango ditu etzi ▶ 7



Bidearen zati bat. N. G.

TOLOSALDEA - LEITZALDEA ▶

Etxerategen preso politikoak «bakartuak» daudela salatu du

Azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dituzte bihar arratsaldean ▶ 6

hitza argazki lehiaketa eman botoa

BOTOA EMATEKO

- ▶ P. elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Telefonoz: 943 65 56 95

Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak, IRAILAK 30 igandeko egunkarian

1 2 3 4
5 6 7 8

ZOKKETA APARTAK

BOTOEMAILE
guztien artean HITZAREN mobila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

KIROLAK ▶

Euskal Herriko neska arraunlariak, etzi Orian izango dira

Emakume Arraunlarien I. Topaketa ospatuko da lehen aldiz larunbatean; zazpi arraun talde ariko dira lehian



Tolosaldeko Arraun Klubeko neska Gipuzkoako Batel Ligaxka irabazi ondoren. HITZA

ESTI EZEIZA

Emakume Arraunlarien I. Topaketa ospatuko dute etzi Oria ibaiko uretan. Lehendabiziko aldiz elkartuko dira Euskal Herriko neska arraunlariak horrelako jaialdi batean. Goizean zehar jokuak eta lasterketan izango dira, ondoren berriz, bazkaria eta parranda.

Pasa den denboraldian jokatutako batel txapelketetan hasi ziren harremanetan Euskal Herriko arraun klub ezberdinetako neska. Hemendik sortu zen etzi gauzatuko den egitasmoa. Hau da, emakume arraunlarien topaketa bat egitea. Ondarru, Zumaia, Hondarribia, Donostia, Orio eta Tolosako neska bilduko dira larunbateko jaialdian. Kadete, jubeni eta etorkizuneko mailako arraunlariak izango dira Tolosako uretan.

Antolakuntzaz TAKeko neska arduratu dira. Dena den, Udalaren, Isastegieta sagardotegiaren eta Kopitek-en laguntza jaso dute, besteak beste. Topaketa honen helburuetako bat da, «jendea ohartzea, arraunean aritzen diren neska badaudela». Nolabait, emakume arraunlarien aldarrikapena izateko xedea du egitasmoak. Eta bide batez, neska kirol mundura hurbiltzea lortu nahi dute arraunlari hauek. Bestalde, talde bakoitzaren egoeraz hitz egiteko eta aholkuak emateko balio izango duela deritzote TAKekoek, «dauden emakume arraunlari gutxiak gerturatzu».

Etzikoa lehendabiziko topaketa izango da, baina antolatzailleek, aurrera begira gehiago egitea espero dute. Ekitaldian parte hartzeko gobita arraun munduko Euskal Herri-

ko emakune nahiz gizonei luzatu diete. Egunaz denek gozatu ahal izan dezaten.

Bakoitzaren kluba ahaztuz

11:00etan hasiko da Emakumeen topaketa. Lehendabiziko ongietorria egingo diete kanpoko taldeei. Ondoren, Oria ibaian jokuak egingo dituzte. Partxisaren koloreko nikiak jantziko dituzte neskek eta lau joku ezberdin egingo dituzte. Taldeak klub ezberdinetako arraunlarien artean osatuko dituzte, ohikoak alde batera utzita.

Ondoren, «denbora ematen badu», klubaren arteko lasterketa egingo dute. Jokuak irabazten dituen taldearentzat saritxo bat izango da. Uretako ekintzak amaitu ondoren bazkaltzera joango dira denak batera.

AISIA ▶



Bonberenea Txarangakoak ariko dira kaleak alaitzen. N. GARCIA

Lehen aldiz, Udazkeneko festa ospatuko dute etzi

Ekitaldi ugari izango dira larunbatean, egun guztian zehar, Alde Zaharreko kaleetan

E. EZEIZA

Tolosako Alde Zaharrak badu bere jai azkenik, eta hau, larunbat honetan izango da. Ezpeleta Ostalarien Elkarteak eta Alde Zaharra dendak antolatuta Udazkeneko jai ospatuko dute estreinako Tolosako alderdi historikoan. Lehen edizio honetan festa egun bakarra izango da.

Eguneko ekitaldi jendetsuenetako bat herri afaria izango da. Zerkausion gauzatu den otordu honetako jakiez Divinus Catering arduratuko da. Enpresa honek berak prestatu zituen Arrautzaren eta Txuletaren festako jakietako batzuk. Afarirako txartelak Kiaran, MO2n, Ayerzan, Orbelan edo Erretengibelen eros daitezke 30 euroren truke. Afarian dastatu ahal izango den menua ondorengoak izango da: Bakailao xaflak baraxuri eta oliba olioarekin; perretxiko eta pikillo budina piper saltsarekin; barazki salteatuen menestra, txahal-masailak barazki eta patatekin, postrea eta edaria.

EGITARAUA ▶

IRAILAK 29. LARUNBATA

- 10:00.** Diana, dultzainero eta txalapartariekin.
- 10:00.** Arku-tiro erakustaldia Armeria plazan.
- 11:30.** Haurrentzako entzierrero. Plaza Berrian hasi eta Plaza Zaharrean amaitu.
- 12:00.** Buruhandi eta erraldoien konpartsa eta Bonberenea Txaranga Plaza Zaharretik abiatuta.
- 12:30.** Haurrentzako entzierrero. Plaza Berrian hasi eta Plaza Zaharrean amaitu.
- 14:30.** Parte-hartzaileen bazkaria Berdura Plazan.
- 18:00.** Tolosako buruhandi eta erraldoien kalejira.
- 19:00.** Konpartsaren egurra eta haur-jaialdia Plaza Zaharrean.
- 19:30.** Udaberriren saioa Gorriti plazan.
- 20:00.** The Jones brothes, s txaranga.
- 21:15.** Herria-afaria Zerkausion.
- 23:30.** THC taldea Plaza Berrian. Ondoren DJ-ak.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GIZARTEA ▶

Sevendenea adingabeko etorkinen zentroko egoera «jasanezina» dela salatu dute

EB-Aralarrek eta PSE-EEK azalpenak eskatu ostean, Foru Aldundiak adingabeko etorkinen zentroak hobetzeko lan egingo duen taldea eratzea proposatu du

IÑIGO TERRADILLOS

Jon Lasa eta Rebeka Ubera Gipuzkoako Ezker Batua Berdeak eta Aralar taldeetako batzarkideek eta Emiliano Cabañas PSE-EEko batzarkideak Giza Politikarako diputatuari atzo goizean Tolosako adingabeko etorkinen zentroaren berri eman dezan «premiatzko» agerraldia eskatu ostean, atzo arratsaldean, prentsaurrekoa eskaini zuen Maite Etxanizek. Foru Aldundiaren ardurapean dauden adingabekoen harrera zentroen egoera «hobetzeko era konfidentzian lan egingo lukeen lan-talde bat eratzea» proposatu zien Batzar Orokorretako alderdiei.

Atzo goizean sortu zen eztabaida. *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian Tolosako Sevendenea adingabeko etorkinen zentroko langile batzuek egin dako adierazpen batzuen ondorioz. Horien arabera, bertako egoera («jasanezina») da. «Ezin dugu denbora gehiago jasan zentroko langileek nahiz adingabe batzuek bizi duten segurtasun eza, eta gainera, bertako instalakuntzak ez daude egokiturik; lehen harrerako zentroa baino, zigor zentro batean bihurtu dela esan daiteke», zioten langile batzuek. «Hezitzaile gehiagoren beharra dugu, egun ez baitaie inolako heziketarik ematen; Foru Aldundian bideratu ditugu gure beharrak eta kekak, baina ez dute arazoa bere gain hartzen». Antza, pasa den astean izan ziren istilu batzuen egiteak erabaki zuten langile horiek adierazpenak egitea egunkari horretan.

Alderdien eskaria

Langileek zentroko egoera «jasanezina» salatu ostean, Maite Etxaniz Giza Politikarako diputatuari azalpenak emateko premiatzko eskaria egin zioten EB, Aralar eta PSE-EE alderdiei. Ezker Batua eta Aralarrek esandakoaren arabera, «pasa den urteko azaroen Tolosako zentroa bisita bat antolatzea eskatu genuen hango egoera ezagutzeko, informazioa kon-



Sevendenea egoitza Larramendi auzoan dago. I. TERRADILLOS

trastatu eta neurri zuzentzaileak hartzeko helburuarekin. Bisita hau ukatu ziguten eta, hori dela eta, ezin izan genuen ezagutu zer gertatzen ari zen, ezta proposamenak egin ere egoera hobetzeko. Denbora pasa da eta dirudienez Tolosako zentroko egoera ez da hobetu, eta derrigorrezkoa da Batzar Nagusietako taldeak eta gipuzkoar gizarteak zer gertatu den jakitea, hori zuzentzeko bitartekoak jartzeko, larria baita zentroko lankideek azaldu dutena». PSE-EEK bere aldetik, langile horiek egingako adierazpenekin kezkatuta dagoela adierazi du; «beharrezkoa da langile hauek esandakoa entzun, azterketa sakon bat egin eta arazoa konpontzeko bideak hartzea berehala; etorkin bezala baino pertsona bezala landu

behar da adingabekoen heziketa, eta hauen segurtasuna nahiz langileena bermatu behar da kasu guztietan». PSE-EEKo Emiliano Cabañas adingabe hauen beharrak artatzeko baliabide eta diru gehiago jarri behar direla azaldu du; «berehalako neurriak behar dira egokitu gabeko instalakuntzak dituen zentro masifikatu honentzat». Cabañasek esandakoaren arabera, «adingabe hauek gizarteratu egin behar dute, baina guk ere gizarteratze horretan parte hartzea oso garrantzitsua da».

Foru Aldundiaren erantzuna

Atzo arratsaldean bertan iritsi zen Foru Aldundiaren erantzuna. Maite Etxaniz Giza Politikarako diputatuak onartu zuen

adingabeko etorkinen zentroetako batzuren funtzionamendua ez dela hain ona, eta hori hobetze aldera, Batzar Orokorretako alderdiei ohiko komisiotatik kanpo eta era konfidentzian lan egingo duen talde bat eratzea proposatu zien. Etxanizek adierazi zuenaren arabera, «adingabeko zentro hauen ezaugarriak arautuko dituen dekretu bat sortzeko ari da lanean Eusko Jaurlaritza». Giza Politikarako diputatuak eginiko proposamena gogo onez hartu zuten alderdi politikoei.

Bestalde, Tolosan, gertatutako kasu zehatzaren inguruan, berriro ere laster Batzar Orokorretan agerraldia eskainiko duela esan zuen Etxanizek, «bertako zentroko egoeraren azterketa egiteko».

ZENBAIT DATU ▶

KRONOLOGIA

2003tik aurrera. Beste leku batera joan ordez, Gipuzkoan geratzeko helburuz etorriko dira etorkin adingabeak.
2004ean. Etorkin adingabeei harrera eskaintzeko arazoak daude, Donostiako eta Urnieta zentroak ez baitira nahikoa.
2005ean. Tolosako Sevendenea egoitza egokitzen

dute lehen harrerako zentro bezala. Urnieta zentroarekin bi dira gisa horretako zentroak Gipuzkoan. Nuevo Futuro erakundeak kudeatzen ditu.
2005 amaieran. Etorren direnen kopurua handituz doanez, egoitza gehiago topatu arte, pentsioetan eta hoteletan sartzen ditu Foru Aldundiak etorkinak. Tolosako Oriá hotela izan zen honen adibide.

2008 urtean. Harrera zentro berri bat egongo dela Gipuzkoan azaldu du Foru Aldundiak. Donostian kokatuko dute zentro berria.

ETORKINAK

Jatorria. %80-90 marrokiarrak dira. Gainerakoak Kamerun, Ghana, Aljeria, edota Europa ekialdetik datozela diote Foru Aldunditik.

GIZARTEA ▶

Elikadurari buruzko hitzaldia urriaren 3an

Elikadura sano baten aldeko arauak: mitoak arbuatzen hitzaldia izango da datorren asteazkenenean, urriaren 3an, Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorren egoitzan, Igaralde kaleko 23. zenbakian, 16:00etan. Garbife Aizpuru dietista-nutrizionista izango da hizlaria.

HEZKUNTZA ▶

Gurasoen bileren egutegia zehaztu dute

2007-08 ikasturteko gurasoen bileren egutegia zein izango den erabaki dute Orix Institutuan. DBH 1ekoek urriaren 1ean, 18:00etan; DBH 2koek urriaren 1ean 19:00etan; DBH 3koek urriaren 2an, 18:00etan; DBH 4koek urriaren 2an, 19:00etan; Batxilergoko 1. mailakoek urriaren 4an, 18:00etan, eta 2. mailakoek urriaren 4ean, 19:00etan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialde.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaro zentroa: 672637
 - ▶ Asunzio Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ EUSKARA

Euskararen trebatu, herrian bertan

Villabonako eta Zizurkilgo udalek helduei euskaraz alfabetatzeko deia eta laguntzak luzatzen dituzte

IMANOL GARCIA

Villabonako eta Zizurkilgoen euskara ikasi nahi dutenek bihar dute azken aukera izena emateko. Horretarako bi herrietako edozein udaletxetara joan daiteke. Bi udalek eskaintza bateratua egiten dute eta diru laguntzak eskaintzen dizkiete ere euskara ikasleei, matrikularen %75a arte.

Villabonako Euskara eta Kultura zinegotzia den Maialen Abaigarrek dioenez, «Udalaren lan jardunean, EAE-ANVren ardatz estrategikoetako bat euskara da». Argi dute «edozein nazio orohar eta herriek bereziki, bere biziraupena bermatu nahi badu berebizikoa duela hizkuntzaren gaiari tinko eta seriozki heltzea». Eskaintza horretaz gain, «hurrengo urteetarako ere helburu hau bera erdiesteko plan oso bat garatzen ari gara» azaldu du.

Euskara hizkuntza gutxitua izatea «are eta estrategikoagoa» egiten du Abaigarren esanetan hizkuntza ikastea. Euskara eta Hezkuntza Batzordeak «bere lehentasunen artean» du, eta horregatik «garrantzitsua» deritzo martxan jarritako matrikulazio kanpaina.



Euskara ikasten aritu den taldeetako bat. HITZA

Bide batez, Abaigarrek erabilerearen garrantzia ere aipatzen du: «Botere publikoen zeregina de erabilera bermatzea ere. Horiek baitira hizkuntza bat bizirauteko ezinbesteko tresnak: motibazioa izatea ikasteko eta bitartekoak jartzeko erabilia izan dadin».

Abaigarrek azaltzen duenez, «herritarrei euskaraz ikasi edota euskara hobetzeko aukerak» eman nahi dizkie eta «horretarako bideratzen dira diru laguntzak». Bestalde, urriari Mintzalaguna ekimena jarri nahi dute abian. «Hori ere diruz lagunduko dugu eta bere helburua hizkuntza esparru ez formalean, hau da, kalean, la-

gun artean... erabiltzea izango da».

Ikastaroak «aukera paregabea» dela dio Abaigarrek, «ez soilik euskara ikasi nahi duen ororentzat bai eta gure hizkuntza aberastu eta jantzi nahi duen edonorrentzat».

Marian Lazkanok Zizurkilgo alkateak azaltzen duenez, euskarak «garrantzi handia» du. Udaletik «animatu» egiten du jendeak izena eman dezan eta aldi berean «eskertu» egiten du «ikasleen esfortzua». «Udalak erraztu egiten du esfortzu hori diru laguntzak emanez», gaineratzen du.

Lazkanok euskara ikasteko beharra ikusten du. «Gustatu-

ko litzaiguke behar hori ez izatea, baina ez da hala». Horregatik «neurriak jartzen direla» dio Zizurkilgo alkateak. Euskara Biziberritzeko Planarekin «pausoak ematen ari direla» dio Lazkanok. «Urtero helburu batzuk izaten ditugu, iaz merkataritzaren inguruak jarri genituen martxan. Aurten Mintzalagunaren proiektua jarri nahi dugu martxan, orain arte emandako pausoak ere aintzat hartuz, noski. Hau da, aurretik emandako pausoak gehi beste gai batzuk jorratuz».

Zizurkilgo Udalaren helburua «herrian, udalean, arlo guztietan euskararen erabilera bultzatzea da», zehazten du alkateak.

Irakaskuntzaren bilakaera

Villabonako euskaltegi bat izan zen, baina 2004an itxi zuten, ikasturte horretan ikasle gutxi izena eman baitzuten eta euskaltegi arduradunek ez zuten nahi edozein modutara proiektua amaitzea. Irakasleek osatutako ondasun komunitate batek kudeatzen zuen eta Villabonako eta Zizurkilgo Udalekin hitzarmenak zituzten.

2004-2005 ikasturtean Villabonako Udalak heldu zion

gaiari. Talde bat sortu zen eta Andoingo AEKren euskaltegiak jarri zuen irakaslea. Hurrengo ikasturterako Zizurkilgo eta Villabonako Udalak elkarlanean antolatuta zuten eta lau talde sortu ziren. Iaz laurek iraun zuten. Bi herrietan jaso dituzte klaseak, Andoingo AEKren irakasleekin.

Maite Arregi Villabonako euskara tenikariak azaltzen duenez, «garai batean helduek sentitu egiten zuten euskara jakitearen beharra, baina orain ez». Eta teknikariak beharra dagoeia ikusten du, «batez ere erabilerari dagokionez». Jendea motibatzearen lana «orokorrean zaila» dela adierazten du. «Ez da erraza asmatzea zer mezu helarazi, eta arazo hori orokorra da».

Euskara ikastearen sentsibiltatea galdu dela dio Arregik: «Atzerritarrek euskara ikasi nahi dute, baina bertakoek ez dute behar hori ikusten».

Ainhoa Larrea Zizurkilgo euskara teknikariak dioenez, «ez da erraza jendeak izena ematea. Hizkuntza ikasteko orduak sartu behar dira, baina zeinek du denbora hori?». Bestalde, bat egiten du Arregirekin euskara ikasteko motibazioa gutxitu egin dela esatean.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

33 eremuko etxebizitzetarako onartuen zerrenda urrian argitaratuko du Udalak

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak antzinako Lizarain zerrategia zegoen lurretan —33 eremua— egin asmo diren babes ofizialeko 33 etxebizitzetarako zerrenda

hartzeko aurkezturiko eskabideak aztertzeari ekin dio.

«Gauzak ondo, izapide horiek datorren urrian» amaitzea aurreikusten du Udalak eta zozketarako onarturiko eskatzaileen zerrenda datorren

hilean bertan argitaratzeko asmoa du.

33 eremuan planteaturiko jarduketak 115 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten du, eta horietatik 33 babes ofizialekoak izango dira.

ANOETA ▶ INGURUGIROA



35 lagunek jaso zituzten kontsumo gutxiko bonbilak

Erredakzioa ▶ Energiarako Euskal Erakundeak abian jarritako kanpainaren baitan, 35 pertsona inguru joan ziren atzo goizean Anoetako kiroldegira kontsumo gutxiko bonbila eta etxean energia aurrezteko gida jasotzera. HITZA



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308
berria



ALEGIA ▶ MUSIKA

Txintxarri Txiki, ahots berrien bila

Irteera ezberdinak antolatuko dituzte, Txintxarri helduen abesbatzak bezala

ERREDAKZIOA

Alegiko Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak hasi dute ikasturtea. Uztailera bitarte entseguak egingo dituzte urteari begira dituzten kantu emanaldiak prestatzeko. Ostiraleroko elkartzeko dira Kultur Etxean, eta izena eman nahi izanez gero, bertara 19:00etan joanda nahikoa da. Ordu bateko entseguak izaten dira.

Txintxarri Txiki abesbatza asmo berriekin dator: besteen artean, ahotsen bila dabil eta abesbatzan parte hartu nahi duten guztiak Kultur Etxean azal daitezke ostiralean, 19:00etan. Idoia Iraolak zuzentzen du abesbatza eta, haur eta gazteentzako erakargarria den egitaraua lantzen dute: zinemako musika, kantu afrikarrak, koreografia duten kantutak... 7 urtetik 15 urte bitarteko 25 haur eta gazteak osatzen dute abesbatza.

Txintxarri Txiki Jacako Coro Albae Voces haur abesbatzaren bisita jasoko du ikasturte honetan zehar. Elkarrekin kontzertu bat eskainiko dute, eta

horrez gain, hainbat jarduerak egingo dituzte elkarrekin.

Oraindik zehaztu gabe badaogo ere, toki berri batera irteera bat egiteko asmoa du abesbatzak, kontzertu bat eskaintzeko eta beste abesbatza batekin trukea egiteko.

Helduen abesbatza

Txintxarri abesbatzak, berriz, dagoeneko hasi ditu entseguak. Asteartean eta ostiralean egin ohi ditu 21:00etatik aurrera. Garbiñe Orbegozo alegiarrek zuzentzen du ahots nahasietako korua. Era guztiakoko musika lantzen dute hauek ere. «Abesbatzan kantatzeko gogoak dutenek abesbatzako norbaitekin jarri beharko dute harremanetan».

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarrekin kantatzea gustuko duten pertsona guztiak, helduak, gazteak eta haurrak animatzen ditu abesbatzan parte hartzera. «Musika eginez gozatu eta beste herrietako abesbatzekin harremanak egiteko modua da» abesbatzako kideen ustez.



Txintxarri Txiki abesbatzakoek hainbat irteera egingo dituzte. HITZA

ABALTZISKETA ▶ UDALA



Markel Olano herri txikiak hurbiletik ezagutzen

Erredakzioa ▶ Gipuzkoako Ahalduen nagusi Markel Olano Abaltzisketan egon zen atzo. Logika SA enpresak udalerriko azpiegituretan eta Larraizko parke naturalean burututako ekintzak ikusi zituen eta, udaletxean, Jesus Mari Gorostidi alkatearekin eta udalbatzako kideekin bildu zen. Bisitan berarekin batera izan du Landa In-

gurunearen Garapeneko diputatu Rafael Uribarren. Alkateak harrera egin ondoren, diputatu nagusiak adierazi zuen legealdian zehar Gipuzkoako udalerriak bisitatzeko asmoa duela, horien errealitatea, etorkizuneko proiektuak eta foru erakundeak horien helburuak lortzeko eskaintako lankidetzak hurbiletik ezagutzeko. N. U.

IKAZTEGIETA ▶

Aerobic eta mantenimendu gimnastika

Ikaztegiatan aurten egongo diren ikastaroak datorren astean hasiko dira eta hauek dira: aerobic, astearte eta ostegunetan, 09:30etik 10:30era. Mantenimendu gimnastika ikastaroa, astearte eta ostegunetan, 18:45etik 19:45era. Izena emateko azken eguna gaur da, udaletxean (943 65 33 29). 40 euro 3 hilabeteko ordaindu beharko da. Gutxienez 10 laguneko taldea osatu beharko da.

AMEZKETA ▶

1959an jaiotako bazkaria, urrian

Urtero bezala, aurten ere Amezketan eta Ugarten 1959an jaiotako bazkaria antolatuko dute urriaren 6an. 14:30ean Txindoki jaitezkoan elkartuko dira, eta bertara joateko interesa dutenak Joxe Mari Goikoetxearekin jarri beharko dira harremanetan, honako telefono zenbakira deituz: 630 85 55 00.

IKAZTEGIETA ▶

Pentsamendu positiboaz, bihar Udal Liburutegian

Bihar, 17:00etan, honako hitzaldi hau izango da Ikaztegiako Udal Liburutegian: *Pentsamendu positiboa, tristurari eta negatibismoari aurre egiteko*. Hau adineko pertsonen dago zuzenduta, eta gai hauek jorratuko dituzte, besteen artean: norbere pentsamendu negatiboaz ohartzeko eta uxatzen jakitea, iraganeko eta etorkizuneko zama aienatuz orain bizitzeko duen garrantzia, pentsamendu negatiboak, kezkek, erlaxazio-teknikak...

BALIARRAIN ▶

Egutegirako herriko argazkien bila

2008. urteko egutegia osatzeko Baliarraingo Udalak bertan jaiotako eta erroldatutako eskaera berezia luzatu die: Baliarrain gaitzat hartuz koloretakoak, zuri-beltzean, berriak edota zaharrak diren argazkiak, hain zuzen. Gutun azal itxi batean aurkeztu behar dira eta horren barruan beste bat, egilearen datuekin.

ALEGIA ▶

Helduentzako klaseak urritik aurrera

Aurten ere helduentzako eskolak izango dira Alegian, urritik ekainera bitartean. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea izango da. Astelehenean, 14:30etik 16:30era elkartuko dira, urriaren 1etik ekainaren 16ra, jubilatuen egoitzan. Euskara eta erdara, matematika, test psikoteknikoak, eta abar egingo dituzte. Fotokopiekin egingo da lan eta 6 euro inguru kobratuko da. Parte hartzeko izen-ematea Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorrako Zentroa deitu behar da eta bertan Ainhoaz galdetu (943 67 26 60).

BIDEGOIAN ▶

Urriaren 2tik aurrera, eskulan ikastaroa

Bidegoian eskulan ikastaroa jarri nahi dute martxan. Lehenengo eskola eguna datorren astean izango da, urriaren 2an, asteartean, beraz. Ikastaroa balio anitzeko gelan egingo dute, eta bi ordu eta erdi elkartuko dira. 14:30etik 17:00etara iraungo du, asteartero. Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxera jo daiteke, edo telefonoz deitu, honako telefono zenbakira 943 68 11 09.

ELKARRETARATZEAK ▶

Preso politikoak «bakartuak» daudela salatzen du Etxeratek

Azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dituzte bihar 19:30ak eta 20:00etan, bi eskualdeetako hainbat herritan



Azken ostiraleko elkarretaratzeak egingo dituzte bihar, bi eskualdeetako hainbat herritan. ESTI EZEIZA

ASIER IMAZ

Eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak egingo dituzte bihar Etxeratek deituta. Azken ostirala izaki, preso eta iheslari politikoekin senide eta lagunek, «ohiko ordu eta lekuetan elkartzeko» deialdia zabaldu dute.

Etxeratek, «euskal preso politikoak geroz eta bakartuago eta bizi baldintza gogorra-goetan» aurkitzen direla salatuko dute, aldi berean, «gaixotasun sendaezinak edo larri dauden senide eta lagunak aske uzteko» exijitzearekin batera.

Abuztuan eta irailean, «17 destinu aldaketa eta diligenziaz medio, hainbat kartzela aldaketa burutu dituzte espainiar eta frantziar estatuek», Etxeratek dituen datuen arabera. «Aldaketa hauen helburu eta ondorioetako bat, gure se-

nide preso politikoekin egunero-kotasuna eta oreka apurtzea da. Halaber, Espainiar Estatuak, bost euskal preso politiko oraindik eta urrunago diren kartzeletara eramanez dituzte».

Senide eta lagunek, bisitak egiteko egin behar dituzten kilometroak, «istripu larriak jasateko arriskua» areagotzen dutela aipatu dute Etxeratek. «Espainiar Estatuan, batz besteko, astero, 1.264 kilometro egin behar ditu preso bat bisitatzerakoan, 40 minutuz, irriak eta malkoak tartekatuz. Frantziar Estatuan egoera ez da berriz, 1.616 kilometro egin behar ditu batez besteko».

Aurten izandako istripuak horren ondorio zuzena direla salatzen dute, «sakabanaketaren ondorioak hor ditugu: 24 senide eta lagunek, jada 11 istripu izan dituzte. Gure odoluste ekonomikoa areagotzeaz gain».

AZKEN OSTIRALA ▶

Bihar hilabeteko azken ostirala denez, bi eskualdeetako hainbat herritan, Etxeratek deituta, elkarretaratzeak egingo dituzte ohiko orduetan eta lekuetan.

IRAILAK 28, BIHAR

Tolosa. 19:30ean.
Ibarra. 19:30ean.
Alegia. 19:30ean.
Amezketan. 19:30ean.
Anoeta. 19:30ean.
Lizartza. 20:00ean.
Ikaztegieta. 20:00ean.
Villabona. 20:00ean.
Zizurkil. 20:00ean.
Asteasu. 20:00ean.
Aduna. 20:00ean.
Leitza. 20:00ean.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean zure inguruan gertatzen diren albisteekin berri emateko aukera duzu. Informazio interesgarriren bat baldin baduzu, atal honetan idatzi eta honen berri emango da gure egunkarian.

IBARRA ▶ POLITIKA

Aho batez onartu dira Ohiko Bilkurako gaiak

EAE-ANVren zerrendakideek «parte-hartze» handiagoa eskatu zuten udal aretoan



Herenegun udaletxean eginiko ohiko bilkurako une bat. A. IMAZ

A. IMAZ

Udalbatza osoaren ohiko bilkura egin zuten herenegun Ibarra udaletxean. EAE-ANVren jarraitzaileak ere bertan elkartzeko ziren («hauteskundeetan 5 zinegotzi lortu zituztela gogorarazteko»). Bilkuran, aho batez aurrera atera ziren gai zerrendako zortzi puntuak. Horien artean, «aurreko bilkurako akta onartzea; 2008ko udal tasak eta zergak arautzen dituzten Ordenantza Fiskalak aldatzea eta 11.1 J.U.ren lurren presazko okupatzearen aitortza».

Bederatzigarren puntua, galdera eta eskariei zegokiena zenez, Aitor Garmendiak (EAE-ANV) hitza hartu zuen.

Hauteskundeetako emaitzak gogoratu ondoren, «alderdi ezberdinekin hitz egiten» ari direla onartu zuen, «Udalean parte hartzeko prest» daudela azpimarratuz. «Alderdiekin bildu ondoren, erantzun ezberdinak jaso ditugu, balorazio positiboa egiten dugularik, nahiz eta batzuk besteek baino borondate gehiago azaldu».

Chelo Romeo (EAJ) alkateak proposamena egiteko eskatu zion EAEkoiei, «komisioetan parte hartzeko» aukera emanaz. EAEtik udal komisioetan herritar guztiak parte-hartu dezaketela azaldu zion alkateari. EAE-ANV bezala, «erabakitzeko eskubidea» aldarrikatu zutelarik.

IBARRA ▶ KIROLAK

Denboraldiko lehen garaipena etxetik kanpo

A. IMAZ

Ibarra Areto Futbol taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen asteburuan etxetik kanpo, Arnedo 0-1 garaitu ostean.

Errioxan jokaturako partidurako, Ibarra lesionatu ugari zituen arren, Ruben Etxar ten golarekin, hiru puntuak lortu zituen. Mikel Sanz atezainaren partidu bikaina ere azpimarratu beharra dago, atea

hutsen mantentzea lortu baitzuten.

Partida oso lehiatua suertatu zen. Arnedo taldeak, joku ona erakutsi zuen, joan den urteko taldearen antziz ez duela erakutsiz. Partida bigarren zatian erabaki zen: errioxarrak jokuan agintzen bazuten ere, ibararren defentsak, gola lortzeko aukera argirik ez zuten uzten. Ibarra bere gola penaltik bikoitz batean lortu zuen.

iragarki laburrak ▶

LANA

Monitoreia. Asteasuko kiroldegia Aerobic monitoreia behar du. 639 96 70 75.

Tabernaria. Amasako Iturri-Goxo jatetxean tabernari bat behar dugu arratsaldeetarako. 943 69 12 10.
Sukaldaria. Larraulgo

arterpekerako sukaldaria behar da. 943 31 14 74.

SALGAI

Ehiza. Uxo eta birgarro postua saltzen da Otzarren. Hiru eskopeta, denboraldi osoa edo zatika. 639 18 23 10.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gurasoak informatzeko drogen inguruko tailerra

Urriaren 3an hasiko da eta izena emateko epea bihar amaitzen da, institutuan

N. GARZIA

Guraso Elkarteak datozen bi asteetarako gurasoentzat drogari buruzko tailerra antolatuko du. Antolatzaileek azaldu dutenez, «tailerraren helburua seme-alabekin zerikusia duten gaiak beste gurasoekin konpartitzea da».

Tailerra 4 egunetan egingen dute, eta Hegoa elkartea arduratuko da hitzaldietaz. Urriaren 3an hasiko da, eta urriaren 5ean, 8an eta 10ean ere emanen dute, 17:30etik 19:30era. Ikastaroa Amazabal institutuan egingen dute, baina antolatzaileen arabera oraindik zehaztu gabe dago zer ge-

latan izanen den. Ikastaroak 10 euro balioko ditu eta plazak murriztuak dira. Izena emateko eguna bihar izanen da, institutuan bertan, atsedena, edo 16:00etatik 17:00etara, institutuko sarrean.

Hauek dira tailerlean jorratuko dituzten zenbait gai: gehien kontsumitzen diren drogen inguruko ezaugarriak, drogekin sortzen diren harreman mota ezberdinak, mitoak eta egiak, zer egin, nola jokatu lehenengo kontsumoen aurrean, drogazaleasuna, abstinentzia sindromea, tolerantzia, nerabeak eta drogak eta komunikazioaren garrantzia.

LEITZA ▶ KIROLAK



Hirugarren proban, sagardotegiaren ondotik atera eta korrika joan beharko dute herriraino. N. GARZIA

XVIII. Kaskagorren Pentatloian ehundik gora parte-hartzaile

Urtero Donostiatik abiatu eta Leitza amaitzen den proba hau etzi egingen dute eta kirola eta parranda nahasten ditu

NAIARA GARZIA

Larunbatean, azkeneko 18 urteetan bezala, Kaskagorren Pentatloia egingen dute. Lehenengo hiru probek kirolarekin zerikusi zuzena dute eta Donostian hasi eta Leitza amaituko dira. Azkeneko bi probak bestelakoak dira: afaria eta gaupasa. Horrexegatik Jon Kasares antolatzaileak azaldu duen bezala, «lagunarteko pentatloia da».

Ehundik gora parte-hartzaile badaude dagoeneko. «Urtero kopuru horren inguruan ibiltzen gara, 80 eta 100 parte-hartzailearen artean», dio Casaresek. Partaideak gehienbat Donostiakoak eta Leitzakoak izaten dira, baina Villabonakoak ere badaude. «Gipuzkoarren eta nafarren arteko lagunarteko proba da. Ni berez Donostiakoa naiz Leitza bizi arren. Duela 18 urte lagunekin hitz egin eta antolatzea erabaki genuen, bi herrien arteko senidetze moduan, bestela ere urtean zehar nahiko haserre ibiltzen gara eta onddoko direla, hondartza dela...» dio umoretsu Casaresek.

Lehenengo 3 probetan igeri, bizikletan ibili eta korrika egin beharko dute parte-hartzaileek. «Ondarretan igeri egiten

dugu. Normalean plataformaraino joaten gara, edo dagoeneko kenduta badago, aurtan bezala, buia bat jartzen dugu. Igeri proba egin ondoren txirrinduak hartu eta denak elkarrekin Ibarraraino joaten gara». Errepidetik joaten dira, baina atzetik, Lasarte eta Villabonatik barrena, autobiatik ahalik eta gutxien pasatzeko. «Han tragotxo bat hartzen dugu, txokolate pixka bat jan eta hortik aurrera benetako borroka hasten da. Bizikletarekin jarraitzen dugu, baina malda hasten da. Errepide zaharretik Erreka sagardotegiraino joaten gara». Sagardotegian hirugarren proba hasten da. «Sagardotegian bizikletak utzi

ondoren lasterka hasten gara trenbidean barrena, Gaztañaga tabernaraino». Leitza pentatloian bigarren zatia hasten da: parranda.

Parranda, ezinbestekoa

Laugarren proba afaria da eta bosgarrena, gaupasa, herrian bertan edo Uitzin, festak baitira. «Afaria eskoletan egingen dugu, catering batekin, hainbeste jenderentzat taberna handirik jada ez baitago herrian».

Aurtan Aurrera bezala antolatuko dute lehenengo aldiz. «Mariezkurrenak autobusarekin lagunduko digu eta Josetxo Villabonak kamioiarekin».

ARESO ▶ GIZARTEA

Jende gutxi enkantearen lehenengo egunean

Ehizerako postu asko hartu gabe gelditu ziren, edo ateratako prezioan hartu zituzten



Ehiza postu asko hutsik gelditu dira lehenengo saioan. n.g.

N. GARZIA

Larunbatean ehizerako postuen enkantea egin zuten udaltxean eta Mikel Baraibar herriko alkateak azaldu duenez, «beste urteetan baino jende gutxiago ibili da, aspaldi bildu dugun diru gutxien bildu guren larunbatean».

Lehenengo larunbatekoa behin betikoa izaten ez denez, jendea datorren larunbatean etorriko dela dio Baraibarrek.

Prezioa hobetzeko epea bihar amaituko da, 19:30ean.

«Aurreko prezioaren seirena hobetu behar izaten dute, eta fidantza bat utzi, kantidad osoaren %10a, eta agiri bat ematen diegu. Larunbatean berriro postu guztiak enkantera aterazen dira», dio Baraibarrek.

Joan den larunbatean postu batengatik ordaindu zuten preziorik altuena 510 euro izan ziren. «Postu asko, haien artean hobereak, hartu gabe gelditu ziren, edo ateratako prezioan hartu zituzten. Etzi jende gehiago espero dugu».

BIRIGARRO ETA USOTARAKO POSTUEN ENKANTEA ARESON (Nafarroa)

Donostiatik 25 minututara, kotxez postuetaraino joateko aukera. Postuak eginda eta inguruak garbituta.

2. enkantea

Irailak 29 • 19:00etan

948 510327 • 665 63 96 74

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra Ion Mintegiagari ongietorria egitearekin batera, Elkartasun Eguna antolatu dute Ibarran. 19:30ean ongietorria egingo diote preso politikoiari. Ondoren, afaria. Txartelako ohiko lekuetan daude salgai.

Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an 11:00etan (10 km). Izen-ematea, Shanti Kirolak-en edo irteeran.

Tolosa. Santa Maria parrokiako katekesian matrikula daitezke haurrek 18:00etatik 19:00etara. Katekesia urriaren 9an hasiko da, 18:00etan.

Tolosa. La Jara Zentroak bidaia antolatu du Extremadurara azaroaren 1etik 4era, Montanchez, Merida, Olivenza eta Almendralejo bisitatuz. Izen-ematea, 230 eurotan, elkartearen (675 70 76 19 zenbakia).

Tolosa. Oargi Mendi Elkartek irteera antolatu du ostiraletik igandera, Bujaruelo bailarara, Pirinioetan, Otal (2.709 metro) eta Bernatuara (2.715 metro) igoz. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.

Tolosa. Caritas-ek mantak eta lozakuak behar ditu lehenbaitlehen. Bere egoitzara (parroki etxearen ondoan) eraman daitezke edo 943 670571 telefono zenbakira deitu daitezke.

Tolosa. Hilaren 17tik 28ra izango da kultur tailerretako matrikulazio epea, 17tik 21era laso ikasleek izango dite izena emateko aukera, eta 24tik 28ra ikasle berriek.

Tolosaldea. Datorren igandeko Alderdi Eguna Foronda-Gasteizera joateko autobusa antolatu dute.



Tolosako paper fabrikari agur

TOLOSA ▶ Papelera Tolosana botatzeko lanak hasi dituzte dagoeneko. Bertan 50 etxebizitza eraikiko dituzte, paper fabrikak ekintza industriala Andoainera eraman ondoren, Papelera de Lizarran-en barnean sartu zirenean. Beraz, lurzoru industrialia izatetik etxebizitzara zuzenduta egongo den lur zoru bilakatu da Foru Aldundiaren onarpenaren bidez. Igarondo igerilekua ere bota zuten eta bi eremuak batuz gero, guztira 118 etxebizitza eraikiko dituzte. ASIER IMAZ

Asteasuko EAJK, 8:45ean abiatu eta 19:00etarako itzultzeko. Autobusa eta bazkaria, 20 euro. Izen-ematea, 943 691314 edo 685 751640 telefono zenbakietan. Tolosatik batzokian eman daitezke izena (943 650276 zenbakian).

ZINEMA

Tolosa. Vincente Minnelli zuzendariaren *Un americano en Paris* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumaren barruan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkorta zizurkildarrak margolanak, upategiak eta paisaiak gehienbat, ikusgai daude Alegiako jbilatuen tabernan.

Ibarra. San Bartolome jaietako argazki-erakusketa ikusi ahal izango da Ibarra Benito Izagirre kultur etxean astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Tolosa. Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan (Korroo kalea).

Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Oinatz Iturralde del Castillo (Lizartza). Gaur urtebete. Muxu asko familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza **TOLOSAN**
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza **LEITZAN**
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

07-08 DENBORALDIA

Harpidedunen txokoa

BRUESA GBC
LECHE RIO BREOGAN

OSTIRALA

28 iraila **20:30**

ILLUNBE

hitza Harpidedunen **txokoa**

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK
Bruesa-GBC / Leche Rio Breogan
 saskibaloit taldeen arteko partidarako lau sarrera pare zozketatu ditu eta hauek dira irabazleak:

- ▶ Garbiñe Mujika (Villabona)
- ▶ Arantxa Zinkunegi (Tolosa)
- ▶ Manoli Arteaga (Tolosa)
- ▶ Leire Otaegi (Anoeta)

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoetan izango dituzte, pasa zaitezte haien bila lehenbailehen. ZORIONAK!!"